



ELKARRIZKETA: DURO FELGUERA, ASTURIASKO LANGILEEN BORROKA

ARRAZATE

1997ko
maiatzak 18
363. zenb.

IKUSPEGIA

**MIKEL
IRIZAR**

KULTURA

**RAKEL PEREZ
DE ARENAZA**

IRITZIA

**JAVIER
ABALDE**

30 GALDERATAN

**HARITZ
AZKARRAGA**

KIROLAK

**JON
PEREZ**

**Astoa, makinak
ordezkatutako langilea**

97-98 ikasturtea

ARRASATE-ARETXABALETA INSTITUTUA



DBH- ESO

Derrig. Bigarren Hezkuntza (1., 2. eta 3.)
 BBB- BUP. 2.maila
 IEE- REM. 1.zikloa (2.maila)
 IEE- REM 2.zikloa (2.maila)
 (Batxilergo Tekniko Industriala)

Non

Arrasateko DBH ikastetxea.
 Arrasateko Institutua.
 Arrasate/Aretxabaleta Institutua

 Aretxabaletako Institutua

HEZIKETA ZIKLOAK

Non

Erdi Mailako Hezkuntza Zikloa

- AUTOEN ELEKTROMEKANIKA
(2 ikasturte + praktikak)
- ERIZAINZA LAGUNTAILEA
(ikasturte 1 + praktikak)

Aretxabaletako Institutua

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIKOA (16-18)
- ZIENTIFIKOA (16-18)
- HUMANISTIKOA (16-18)

Non

Arrasateko Institutua

Goi Mailako Modulus

- SISTEMA AUTOMATIKO ETA PROGRAMAGARRIA
(ikasturte 1 + praktikak)

Aretxabaletako Institutua

LHII Automozioa

Autoen Mekanika eta Elektrizitatea
 (2. eta 3.maila)

Non

Aretxabaletako Institutua

Arreta pertsonalizatua, ikasle zein gurasoekin bilerak.

Aurreinskripzio epea: maiatzaren 2tik 16ra arte

**Aukera
 ezazu
 Eskola
 Publikoa!**

**Aretxabaletako
 Institutua**



Etxebarri Auzoa z/g.
 Tel.: 79 79 00
 Faxa: 77 09 55
ARETXABALETA



Sta. Teresa kalea, 25
 Tel.: 79 44 47
 Faxa: 79 44 37
ARRASATE

Barne Erbestea

Han-hemenka irakurri izan diet zenbait intelektual edo pentsamendu iluneko jendei kontu hau - gaztelaniaz *exilio interior* deitzen diote- eta ez nion esangura garbirik hartzen, adornutarako hitz potolo gisa ikusten nuen batipat. Baina urteak joan ahala, eta gure gizarteko arazo batzuren bilakaera bistan, sentitzen hasia naiz nire txanda iristen ari dela, barne erbesteratzekoa, alegia.

Izakiaren alde sozialak eragin izan nau ia beti. Etxetik, edo amona Kaietanak esango zukeen bezala "kumatikan" jaso ditudan ondasunen artean bazegoen gizartearekiko ardura,



Mikel Irizar

gai kolektiboez arduratzeko joera. Gero, klandestinitate garaiko lagun bati entzundakoa ere gogoan dut: "Geu ere, finean, geurekoiak gara, norberarentzat ari gara bakoitza. Baina gizartearen partaide sentitzen garenez, ezin dugu geure ongizatea lortu gizartearena erdietsi gabe". Eta gutxi-asko, uste dut motxila horrekin ibili

naizela orain arte, sentimendu horrek eraman nauela egin dudan bidean barrena.

Eta orain akabo, pila hori agortu egin zait. Gizartearen ongizatea,

ondorioz neurea ekarriko lukeena, ez dut lasterrera ikusten eta ni ez naiz betirako. Ongizatea hurbilduko luketen joeren orde,

"Gizarteko arazo batzuren bilakaera bistan, sentitzen hasia naiz nire txanda iristen ari dela, barne erbesteratzekoa"

kontrakoak somatzen ditut: interes oker edo aitorrezinak hitz ederretan bilduta, zentzuzko ahotsa apurrek duten oihartzun eskasa, konponbideak baino etekinak aurkitzeko ohitura, edo oinazeari fribolitatez erantzutekoa, edo "nire kontrarioei kontra egiten diena niretarikoa da" esanaz manipulatzekoa, edo....

Aukeratzeak berarekin du zerbait galtzea, eta gizartearen alde jarduteak pertsonaren barrualdea jarein samartzea ekar lezake, edo hori ekarri du nire kasuan. Eta horretan eman nahi nuke denbora dexente aurrerantzean. Kanpoan euria denean liburu on batekin aterpea gogoz hartzen den bezala, nire ilusioak gauzatzeko egokierarik ematen ez duen gizartetik erbesteratzera noa, ameraunez eta hautsez josita dudana gizabanakotasunera, barneko ongizatea barruan ditudan elementuekin eraikitza. ■

363. zenbaki honetan

1997ko maiatzaren 16an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Ikusi eta entzun	33
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/22	Foto zaharra	34

Ikuspegia

Mikel Irizar 3

Euren ikuspuntutik

Jabier Abalde..... 8

Aurrez aurre

Duro Felguerako langileak 24/25

Kulturaren txokoa

Rakel Perez de Arenaza 27

Hogeita hamar galderatan

Haritz Azkarraga..... 30

Asteko gaia

Astoak arrantzaka, ze erremedio!..... 17/19



Astoz beteta ere egoten ziren sasoi batean Mondragoeko kaleak, urteetan ez da, baina, bakar bat ere ikusi.



ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65; Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Behar-do Kortabarria. Kazetariak: Maria Agirre, Ibaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcel. Publizitateak: Kaitin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). Administrazioa: Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26). Diseinua: Goio Arana. Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Ariola, Bixente Azkarate, Joern Agirreumeta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Virginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña.

Banaketa arduraduna: Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. Lego-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gentu Koop. E. (Zubillaga, Ofati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza



Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

16

ostirala

■ ZINEA

Sobrevivir a Picasso Alai zineman 7etan eta 9etan.

■ BIDEO EMANALDIA

Gaia: Ordenagailuz egindako laburmetraiak eta gazteen bizi baldintzak. Arratsaldeko 7etan Kondekua Jauregian. Arrasateko Hitz eta Ekintzak antolatuta.

■ MUSAKOLAKO JAIK

Arratsaldeko 4etan jubilatuen mus txapelketa. 4.30etan bolo txapelketa. 5etan ping-pong txapelketa. 7etan ikurriña igotzea. 7.30etan jubilatuentzat afaria Kataiden. Gaueko 11etan *Drindots* taldearekin dantzaldia. 12etan diskoteka ibiltaria.

■ AL ANDALUS ELKARTEAREN KULTUR ASTEA

Cordobako Montilla herriko Udal Korporazioaren bisita eta afaria. Ondoren Al Andalus elkarteko talde desberdinen emanaldia.

17

larunbata

■ ZINEA

Secretos de corazón Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ MUSAKOLAKO JAIK

Goizeko 9.30etan mendiko bizikleta trabesia. 10etan buruhandiak eta erraldoiak. 10.30etan pilota partiduak. 12etan aerobic erakustaldia. 12.30etan Arrasate Motozale Elkarteak antolatuta kontzentrazioa. Ordu berean herri txikiteoa eta astoaren irteera. 1.30etan urrezko astokiloen banaketa. 2etan manifestazioa. 2.30etan herri bazkaria. 5.30etan sokatira sari nagusia. 7.30etan buruhandiak eta erraldoiak. Gaueko 11etan *Trabuko* taldearekin dantzaldia. 11.30etan bolo txapelketa.

■ SAN ISIDRO XAKE BIZKORRA eta ALDIBEREKO XAKE TXAPELKETAK

San Isidro xake bizkorra goizeko 10etan San Antolin herri eskolan. Izenematea dohainik. Aldibereko xakea arratsaldeko 4.30etan San Antolinen zapatuan eta domekan.

■ ARRASATE CHERNOBYLEKIN

Eguerdiko 12etan txalaparta eta perkusioa. 12.10etan *Tunantes del norte*. 12.30etan globoak zeruratzea eta trikitixa eskolaren emanaldia. Ekintza guztiak Herriko plazan.

■ ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN TOPAKETA

X. Eskola arteko abes-

18

igandea

■ ZINEA

Secretos de corazón Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISMOA

Ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Legutio, Etxaguen, Murgia, Gasteiz, Betoño, Landa eta Arrasate, 106 kilometro. Irteera 9etan Monterrondik.

■ OMENALDIA

Dionisio Zabarteri. 12.30etan meza Gesalibarko parrokan. Bazkaria Gargartzako auzo etxean.

■ KONTZERTUA CHERNOBYLEN ALDE

Amaia antzokian eguerdiko 12etan. Parte hartzaileak: Txalaparta eta perkusioa, Trikitixa eskola, Goikobalu txiki, Bras eta Arrasate Musikal. Chernobil elkarteak antolatuta. Sarrera: 500 pta.

■ MUSAKOLAKO JAIK

Goizeko 11.30etan gimnasia erritmika erakustaldia. Arratsaldeko 6etan herri kirolak. 7.30etan kontzertua *La parranda Mejicana* eta *Mal de Ojorekin*. 12etan azken traka eta suzko errubarak.

■ 0,7aren ALDEKO BIZIKLETA MARTXA

Eguerdiko 12etan bizikleta ibilaldia 0,7aren alde Seberotik hasita. Harreman taldeak antolatuta.

■ AL ANDALUSEKO KULTUR ASTEA

Arratsaldeko 7etan erreginaren eta ohorezko damen aukeraketa lokalean.

batzen topaketa Amaia antzokian goizeko 11etatik 6ak arte. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

■ AUTOPISTAREN ETA AHT-REN AURKAKO MENDI MARTXA

Eibar-Gasteiz autopista eta Abiadura Handiko Trenaren trazaketak bat egiten duten parajeetatik martxa. Irteera Eskoriatzako plazatik goizeko 9.30etan. Arrasate-tik joan nahi dutenendako autobusa Abaroatik goizeko 9.15etan. EKI eta AHTren aurkako Asanbladak antolatuta.

■ PENTEKOSTES PAZKO BIJILIA

Gaueko 9etan Pazko Bijilia Udala bidean dagoen Kontzeziño komentoan. Igozteko mediorik ez dutenentzat autoak egongo dira Garibai-kogeltokian 8.30etan eta 8.45etan.

■ AL ANDALUSEN KULTUR ASTEA

Alhucema Sevillako taldearen emanaldia gaueko 10etan Al Andaluseko lokalean.

■ EUSKARAREN EGUNA ARETXABALETAN

Musika, umeendako jolasak, xake lehiaketa, kirol ekintzak, dantzaldia, goizetik gauera arte, Loramendi elkarteak antolatuta.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

The Onyas, Ass Draggers, La Secta eta Los Perros.

19

astelehena

■ ZINEA

Secretos de corazón Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

Gaia: Gastronomía. Hizlaria: Jose Juan Castillo. Arratsaldeko 7.30etan Udalpe elkartean. Antolatzailea Udalpe elkarte.

■ AL ANDALUS ELKARTEAREN KULTUR ASTEA

Nagusiei omenaldia. Arratsaldeko 7.30etan koro eta zinten banaketa erregina eta ohorezko damei. 8etan 65 urte gorakoendako luntxa.

20

asteartea

■ ZINEA

Secretos de corazón Alaia zineman 7etan eta 9.30etan.

■ BIDEO EMANALDIA

Gaia: Ordenagailuz egindako laburmetriak eta gazteen bizi baldintzak dokumentala. Arratsaldeko 4.30etan Biona Tabernan eta 6.30etan Ekaitz tabernan.

■ HITZALDIA

Gaia: Egungo hiztegiak eta entziklopediak. Hizlaria: Goio Jaka. Arratsaldeko 6.15etan euskaraz eta 7.15etan gazteleraz Monterronen.

■ HITZALDIA

Gaia: Euskal umorea. Hizlaria: Iñaki Linazasoro. Arratsaldeko 7.30etan Udalpe elkartean. Antolatzailea Udalpe elkarte.

21

asteazkena

■ HITZALDIA

Gaia: egungo hiztegiak eta entziklopediak. Hizlaria: Goio Jaka. Arratsaldeko 6.15etan euskaraz eta 7.15etan gazteleraz Monterronen.

■ HITZALDIA

Gaia: ardoak ezagutzuz. Hizlaria: Francisco Rodriguez (Rioja Alta bodegako enologoa). Arratsaldeko 7.30etan Udalpe Elkartean. Antolatzailea Udalpe Elkarte.

■ AL ANDALUS ELKARTEAREN KULTUR ASTEA

Gaueko 8etan *The Juristic band* taldearen emanaldia lokalean.

■ SOKA, HAIZE ETA METAL KONTZERTU PEDAGOGIKOA

San Viator ikastolan. Arratsaldeko 3.30etan.

22

osteguna

■ ZINE KLUBA

La reina de la noche Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

■ HITZALDIA

Gaia: Pilota gaur egun. Hizlariak: Tolosa, Ogeta, Lizartza eta Arrasateko pilotari ohi batzuk. Arratsaldeko 7.30etan Udalpe elkartean. Antolatzailea Udalpe elkarte.

■ AL ANDALUS ELKARTEAREN KULTUR ASTEA

Arratsaldeko 5.30etan umeendako jolasak eta trivial txapelketa. 8etan hitzaldia. Gaia: Andaluziako dantza eta kantua osatzeko terapia bezala. Hizlaria Eugenio mediku naturista.

kontuan hartzekoak

■ SAN JUAN KARTEL LEHIAKETA

San Juan kartel lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 23a.

■ JESUSI ETXEBARRIA AKADEMIA

Maiatzaren 19tik ekainaren 18a arte musika akademiako matrikula zabalik arratsaldeko 4etatik 9ak arte. Informazio gehiagorako deitu 79 17 67 zenbakira.

■ DEBA GARAIKO LANBIDE HASTAPENA

97-98 ikasturterako matrikula zabalik. Eskabideak udaletxeetan egin behar dira maiatzaren 23a arte, goizeko 11etatik ordubata arte. Matrikula Zaldibar Ikastetxeko idazkaritzan goizeko 10etatik 12.30etara. Matrikula arrunta ekainaren 9tik 19ra eta uztailaren 1etik 4ra. Berezia irailaren 2tik 10era.



AEROBIC ETA GIMNASIA ERRITMIKOA

Musokolako jaiak direla eta, larunbatean eguerdiko 12etan aerobic erakustaldia izango da Musokolako kiroldegian. Bertan Aerobic ikasleek hartuko dute parte. Domekan berriz, gimnasia erritmikako taldeak erakusketa egingo du goizeko 11.30etan Musokolako kiroldegian.

SAN JUAN JAIEI BURUZ

San Juan jaien inguruan ados ez nagoen hiru alde azalduko ditut.

Gizarte teknologizatu, kontsumista, hotz eta kalkulatazailer honetan, egunetik egunera urrutiago gaude Naturarekin harreman afektibo eta errespetuzkoak izatetik. Era berean, gure arbasoek Euskal Herrian bizi izandako historia ez ezagutzea edo nahastea eragiten du.

Lurra, animaliak, arbolak, ura, haizea, ilargia eta eguzkia ziren eurek gurtu eta zaintzen zuten jainkotasuna. Jakin zekiten indar horiek guztiak beharrezkoak zirela euren gorputz-izpirituak elikatzeko. Ez zuten irudipe nezko jainko eta santurik behar. Lurra eta Kosmosa sakratuak ziren eta horien inguruan egiten zituzten festak eta ospakizunak. Ekainaren 24ko festan, uda hurbil zegoela iragartzen zen eta ura oroitzen; ibaiak urtsu egon zitezen eskatzen zuten eskerrek emanez eta bertan garbituta.

Arbolek, lorez betetako arbolek, frutuak iragartzen zituzten eta eurok abesten zieten eskerronez beteta eta noizbait aberastasun hori galduko ote zuten beldurrez.

Inoiz ez zitzairen bururatu-ko makal bat edo beste edozein arbola baliotsu festa bat egiteko botatzea. Hemen dator nire lehen desadostasuna. Ez zait ondo iruditzen urtero-urtero tamaina horretako arbola bat desagertaraztea; hobe litzateke Monterronen edo Arbolapetan dauden eder horietako bati omenaldia egitea.

Agertu nahi dudan bigarren gaia bigantxa edo bakilen erabilera da. Animaliak ez dira objektuak. Fisikoki eta psikologikoki sufritzen duten izakiak dira. Ez daude gure gurariak asetzeko. Eurak ez dira beren borondatez atera-

tzen. Norbaitek ez zaiela kalterik egiten pentsatuko du, baina sortarazten zaien kalte psikologikoa izugarria da. Gainera, ekintza hauek ideologia sortzen dute, hain zuzen, pentsamolde zapaltzailea eta oso kaltegarria berdintasunerako eta sentikortasun kolektiboaren hazkunderako.

Hirugarrena zera da, negatiboa iruditzen zaidala "Dragoi Janak" edo antzekoak egitea. Zentzuzkoagoa izango litzateke Dragoi Festa egitea eta bertan animalia, berak nahi izanez gero, Murugainetik jaistera gonbidatzea, janaria eman, herriarekin dantzatu eta gero babeslekura itzultzeko. Ideologia atzerakoia egiten da, bere heriotzaren bidez animalia txuleta gisa ikusten denean, batik bat duen garrantziagatik Arrasateko historiaren liburuan jasotzen den animalia izanda.

Bukatzeko, nire aitak San Juanetan kantatzen zituen estrofetako baten letra gogoratuko dut lehen esandakoa-ekin oso loturik dago eta:

*Erreka guztiak
agortu dira*

arrain gaisoak egarri.

*Datorren urtean mutikotxoak
nun egingo dute igari.*

Horrela bada, Arrasateko herria animatu nahi dut ekologiaren eta animaliekiko maitasunaren baloreak defendatzen aitzindari izan dadin.

Klara Elkorobarrutia

PILOTARIK EZ ARRASATEN

Irailetik aurrera ez da pilota partidu ofizialik jokatu Arrasaten.

Pilota partidu ofizial bat jokatu behar dugun bakoitzean, bezperan euri itxura bada, go, taldean zalantzak eta etsipena nagusitzen da. Herri denean daude gurean baino instalakuntza hobeak, ondorioz araudiarekiko sentsibilitate

handia dute, baita epaileek ere.

Apirilaren 27an, igandea, Herrien arteko Txapelketaren kanporaketa jokatu genuen Lasarte-Oriaren aurka. Euri apur bat ziharduen. Han hasi zen gure gurutz-bidea, ordu-ra arte gaingitu ahal izan genuena, jokatzeko moduko eguraldia zegoela komentatu izan behar genituen denak, ez zela ezer gertatuko kontuz ibiliz gero, pilotalekuaren obrak laster hasiko zirela eta orduan gauzak beste modu batekoak izango zirela. Jokatzeko hasi ginen.

Hiru partiduetan, hainbat aldiz barruraino sartzen zen euria. Baldintza horietan, epaileek araudia betearazten hasi ziren, eta lau aldiz ere geratu zituzten partiduak, konponbidea aurkitu arte. Eskerrak guk animatu eta jarraitzeko esaten genielako, nahiz eta egoera dena zegoenetan uzteko modukoa izan.

Gertatutakoaren aurrean,



Publizista berria

Nerea Zallo, 26 urteko arrasatearra, ARKOn hasi da lanean. Nereak publizista lanak egingo ditu bai aldizkari zein telebistarako. Leioan publizitatea ikasi, eta azkenaldian Euskaldunon Egunkariko publizitatea sailean egin du lan.

pilota taldeko zuzendaritzak honako erabaki hau hartu du: Arrasateko jokatu behar dituen pilota partidu ofizial guztiak (Gipuzkoako liga, Euskal liga, Deba Arroa, Herrien arteko Txapelketa...) araudizko eta ondo babestutako frontoi batean jokatu dituela, inguruko herriren baten.

Pilotaren onerako, zuzendaritza honen desioa da egoerari ahalik eta azkarren irtenbidea ematea.

Juan Osinaga, Arrasateko pilota taldearen izenean.

AHT-REN KONTRA KANTATZEKO BERTSOAK

1) Maiatz honetako hamazazpian mendi irteera Eskoriatzan izango dugu bederatziaik eta laurdenetan plazan basorik-baso, zalairik zelai txorien kantekin dantzan ornitologi piskat amaituko dugu Gatzan kukuak ere trenaren aurka daude, ez jarri zalantzan!

2) Gatzagan bertan izango dugu makau edo bazkaria menua ezin erabakirik gaude, hau da komeria!: bedarjaleek entsalada nahi ta besteok aharia eszizio bat sortzeko gaia da azal dutako guztia antxumea entsaladarekin erdiko irtenbidea?

3) Bertan lo egin eta igandean... Asanblada Orokorra! eztabaidatuz, gaiak jorratuz pasatuz aje-mozkorra bizia eman digun lurraren apologia gogorra hori da behintzat Ama Lurrari ordaintzeko dugun zorra izatea trenbidea zuloz hondatzen duen satorra.

Deba Bailarako AHTren aurkako asanblada

Zure soldataren 0,7a hirugarren mundurako zuzenduko zenuke?




Celerino Perez
Jubilatua
(60 urte)

Ondo irabaziko banu ez litzaidake inportako pobreei laguntzea. Baina orain ez nago 0,7a emateko moduan.



Mari Sanchez
Etxekoandrea
(45 urte)

Lehenengo hemengo pobreei lagundu behar zaie, eta gero atzerrikoei. Emango nuke, baina hemengoendako.



Roberto Gabilondo
Langilea
(34 urte)

Ematen dut. Urtean bi bider lantegian diru bilketa egin, eta hirugarren mundurako lan egiten duten taldeei ematen diegu. Gutxi gorabehera %1a ematen dut.



Maria Luisa Berriotxo
Langilea
(46 urte)

Behar bada bai. Gertatzen dena da ez dakizula diru hori nola erabiltzen den. Diruaz zer egiten den jakingo banu emango nuke



Manu Lakarra
Langilea
(35 urte)

Zuzenduko nuke, baina orainoz ez dut egiten. Zelan egin behar da hori?



Leonor Lopez
Etxekoandrea
(68 urte)

Ez dakit, pentsatu egin beharko nuke. Bapatean ezin dut esan, asko pentsatuko nuke.



Jose Emilio Fernandez
Langilea
(38 urte)

Emango nuke 0,7a, baina oraindik ez dut horrelakorik egin.



Ana Segundo
Langilea
(27 urte)

Egingo nuke, baina ez dut egiten. Ez litzaidake inportako kopuru hori ematea.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

USTEAK USTE

Guernicarik ez Euskal Herrian

Ez da denbora asko alemaniar agintari batzuk Gernikan barkamen eske egon zirela, gerra denboran Francori laguntza emanaz euren abioien bonbek sortutako hondamendiagatik. Inork ez du horregatik gertatutakoa ahaztuko, ezta han bizia galdu zutenen oroimena galduko... baina damu zintzoa agertu zuten eta barkatuta daude, keinu simple batez ordaindu dute zorra. Hainbesterako badira gernikarrak, edo bagara euskaldunok. Joanak joan.

Espaniarrak, berriz, ez dira oraindik keinu simple bat agertzeko gauza izan. Alemaniarrak baino askoz errazago zeukaten, Picasso kataluniarraren *Guernica* Euskal Herrira ekartzearen keinu simplea adibidez. Baina ezezkoa eman dute. Sasoi batean herri oso bat suntsitu zuen sarraskiaren lekukoa han nahi dute, bonbardaketaren agindua sortutako tokiaren ondoan. Bitartean, hemen betikoan gabiltza, arazoari arazoak gehituz. *Guernica* Bilbon? Gernikan? ...Euskal Herriko edozein herrik ondo merezita duelakotan nago.

Beñardo Kortabarria



Deba Garaiak bizi duen mehatxua

Javier Abalde

Gero eta hurbilago dago bi azpiegitura handiren, hau da, Maltzaga-Gasteiz errepidearen edo Abiadura Handiko Trenaren, burutzapena.

Duela egun batzuk, N-1 errepidearen Etxegarate inguruko desdoblamentuaren luzapenak Goierrin sortu duen gatazka saihestu nahian, bi lanok batera hasiko zirela esan zuen administrazioak.

Bestalde, Urumearen korridorearen inguruko proiektuari tratatua aldatu egin zaio, lursail horiek Abiadura Handiko Trenak hartzeko.

Ikus dezakegunez, administrazioak aurrera darrai.

Itsukeria da, naturak ezarritako mugak kontuan hartu gabe, teknikak arazo guztiak kon-

pondu ahal izango balitu bezala jokatzera. Ez dugu ahaztu behar azpiegitura hauek baliabide berritzezinak eta ordezkagaitzak suntsitzen dituztela. Horrezaz gain, kontsumo energetiko handia dute eta gizartearentzat onuragarriagoa den erabilera izan dezaketenen baliabide ekonomikoak suntsitzen dituzte.

Gero eta premiazkoagoa da lurralde eta garraio-politikan funtsezko aldaketak egitea, garraio-behar gutxiago sortuko duen produkzio eta

lurralde-eredura bideratzeko. Horrela bada, garraio-sistemek modu eraginkorragoan erantzun behar diete behar horiei, hau da, baliabide ekonomiko gutxiago erabilita, energia aurreztuta, ingurugiroa gutxiago kaltetuta eta kostu sozial txikiagoak izanda.

Bi azpiegitura horiek eginenez gero, gure bailara eza-gutzeko moduan geratuko da. Administrazioa, eraikitzaile handiak, automobilaren eta petrolioaren industria eta konpainia elektrikoak beren lana egiten ari dira, guk geurea egin behar dugu: aurka egitea.

Horretarako, EKI eta AHTaren Aurkako Asanbladak mendiko ibilaldi bat antolatuko dute. Ibilaldi hori maiatzaren 17an, larunbata, izango da Eskoriatzako enparantzatik goizeko 9.30etan irtenda eta 3 edo 4 orduko irauongo ditu. Ondoren, bazkari herrikoai izango da nahi duenarentzat. Arrasateko jendearantzat Eskoriatzarako autobusak 9.15etan irtengo du Garibaitik.

Egiozu kontra garapen suntsitzaileari eta zatoz gurekin.

“
Maiatzak 17
Abiadura Handiko
Trenaren aurkako
mendi ibilaldia
 ”

Memesa
 79 42 22

UGARAN
 jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

● **Txitxinpe** ●
 Berezitasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak
 Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

astea bi hitzetan

■ **Jarriaren protesta ekintza**

Aldi baterako lan enpresen iharduera, eta lan merkatuaren egoera salatu zuen hainbat gaztek joan den ostiralean Jarraik deituta.

Asmoa, gazteriaren egoera soziala eta ekonomikoa jasotzen dituen txostena aldi baterako lan enpresei ematea bazen ere, bulego horietako ateak itxita aurkitu zituzten.

■ **Udala Egunkariaren akziodun**

HBren, EAren eta EBaren aldeko botoekin, joan den ostiraleko plenoan onartu egin zen Euskaldunon Egunkariaren akzioak erostea. Botazioa egin aurretik J.M. Loiti zinegotziak EAJk aurka bozkatuko zuela jakinarazi zuen. HBk ezezko horren zergatiak azaltzea

eskatu zion, baina zinegotzi jeltzaleak ez zuen azalpenik eman.

Azalpenak eman zituzten Jimeno sozialista izan zen. PSE-EEkoak esan zuten, Egunkaria ez da plurala eta tendentzia jakin batekoa da. Jimenoren hitzetan, zaila da intransigentzia bultzatzen duen egunkari baten akzioak erostea. PPkoak ere aurka bozkatu zuen.

■ **Mozio alternatiboa aurkeztu**

LAB, CC.OO, ELA, UGT, ESK-CUIS, STEILAS, Askagintzak, Komite Internazionalistak, Lankideak eta Emakumeen Asanbladak giza eskubideen gutunaren alde aurkeztutako mozioa ez zen onartu. Hirukoak mozio alternatiboa aurkeztu eta onartu zuen. Mozio alternatiboak antze-

rakoa esaten zuen, baina zehaztapenik egin barik. Aurkeztutako mozioak, administrazio publikoan jubilatzekeo adina 60 urtera, eta asteko lan orduak 32ra jeistea eskatzen zuen. Hirukoak ez zuen begi onez ikusi horrelako zehaztapenik egitea, euren ustez era horretan legebiltzarreko ateak isten dira eta. Sindikatueta-ko ordezkariak erantzun zientenez, filosofia alde batera utzi eta langabeziari aurre egiteko neurri zehatzak hartu behar dira.

■ **Zerrajeran etxebizitzak**

Zerrajeran etxebizitzak egiteko arau osagarriak aldatzea onartu zuen ostiraleko udalbatzak. HBk aurka bozkatu, eta inguru horretarako onartu den ordenamenduarekin ados ez dardela esan zuen.



TRIKITI SOINUAK NAGUSI

Joan den zapatuan Arrasateko trikitixa eskolakoek euren eguna ospatu zuten. Eguerditik aurrera eta baita arratsaldean ere, trikiti soinuak entzun ziren herriaren erdialdean. Trikitilari asko irten zen kalera, afizioa gero eta handiagoa dela erakutsiz.

“ Batzuk pentsatu eta gainontzekeoak egin modeloekin apurtu beharra dago, jende guztiak pentsatu eta egingo duen modeloetara joateko.



Modeloa ez da anarkia izan behar, baina saiatu egin behar dugu lantalde osoak eskuak erabil ditzan eta adimena erabil dezan, gizakiaren gauzarik garrantzitsuena pentsatzeko duen ahalmena delako. Era horretan jakin behar du berarengandik ez dela espero bakarrik teknika menperatzea, baita pentsatzeko gaitasuna, definitzekoa, helburuak proposatzekoa eta helburu horiek kontrolatzekoa, eta pertsona autonomoa izan dadila, beste batzurekin elkarlanean proiektu berdinean ihardunez”.

ANTONIO CANCELO
1997-5-8
Egin



Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

San Kristobal kanposantuan 652 hilobi gehiago egingo dira

Uztailaren erdialdean San Kristobal hilerran aldi baterako hilobiak egiten hasiko dira. Oraingo honetan, 652 hilobi berri eraikiko dira eta irailaren bukaerarako 160 eginda egongo direla aurreikusitu dute.

Obrak hala ere adjudikatu barik daude oraindik, eta horretarako lehiaketa deitu eta enpresa bati adjudikatu dizkio lanak Udalak. Adjudikazioa lortzen duen enpresak, 652 hilobiak batera egin eta lehenengo batzuk ere gero gainontzekoak egiteko aukera izango du. Edozelan ere, udazkenerako 160 eginda egon beharko dira. Kanposantuaren handitze proiektuak 56 milioiko aurrekontua du.

Urtean San Kristobalgora kanposantuan batz bestetik 114 gorpu lurperatzen direla kontuan izanda, datozen urteetarako beharrak beteta egongo dira handitze proiektuarekin. Gainera, oraingo hilobietan lurperatu dauden



Urtero batz bestetik 114 gorpu enterratzen dira aldi baterako hilobietan.

gorpuak hamar urte pasatakoan atera, eta beste batzuren dako tokia egongo da hilobi horietan.

Hilobi berriak klaustroaren alboan eraikiko dira, eta

orokorrean klaustroen forma hartuko badute ere estali barik egongo dira.

Hirugarren aldia izango da kanposantu berria handitzen dela.

Soldadutza egiten ari direnei oharra

Soldadutza egiten dauden arrasatearrek San Juan jaie-tan herrian egon nahi badute, Alkatezari jakinarazi behar dizkiote nagusiaren izen-abi-zenak. Ondoren, Alkatezari eskutitza bidaliko du jaietarako baimen berezia eskatzuz.

Bestalde, urtero moduan 80 urtetik gorakoei omenaldia egingo zaie ekainaren 24an, eta ekitaldi horretan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Udal-letzeko bulegoetan.

Adjudikazioa indargabe utzi nahi

Udalak indargabe utzi nahi du Tecsarekin duen lotura.

Ferixalekuko frontoiaren obrak adjudikatu zizkion Udalak Tecsari, baina proiektuan aldaketak eman direlako indargabe utzi nahi da adjudikazioa. Estatuko kontseilura zuzendu du eskaria Udalak, eta horrek esango du adjudikazioa bertan behera gertatzen den edo ez.

TOLDOS LECE C/B

Kataide Poligonoa, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxa: 77 04 45

Eguzkiaren indarrari gogor egiten dion marka sendoa gara.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tel.: (943) 79 24 58

Elkartasunerako deia Harreman eta Chernobyl elkarteen eskutik

Hasi berri den astebukaera aukeratu dute Harreman eta Chernobyl elkarteek euren aldarrikapenak plazaratzeko.

Chernobyl elkartearen bazkide arrasatearrek, istripu nuklearraren ondorioak jasaten ari direnak gogoratu baina batez ere dirua biltzeko ekintzak prestatu dituzte. Iganderako antolatu duten konzertutik jasotzen den dirua, uda partean Chernobylgo 150 ume Euskal Herrira ekartzeko erabiliko da. Chernobylgo umeren bat etxean hartzea erabakitzen duen familiak umeren hegazkin txartela ere ordaindu beharko duenez, gastu hori gutxitzeko diru bilketa hasi du elkarteak. Guztira 15 milioiko aurrekontua du 150 umeak ekartzeak, eta herrian jasotzen den dirua elkartera zuzenduko da.



Iganderako 0,7aren aldeko bizikleta martxa deitu du Harreman taldeak.

Aurten Chernobylgo hiru ume etorriko dira Arrasatera, hiru familiek azaldu dute haur bat etxean jasotzeko nahia eta. Chernobyl elkartearen bazkide,

berriz, 12 arrasatear egin dira. Iaz Udalak 100.000 pezetako dirulaguntza eman zion elkar-teari.

Hirugarren munduaren

alde lan egiten duen Harreman taldeak, bestalde, urteroko bizikleta martxa antolatu du iganderako. Martxaren bidez, 0,7a erakundeetatik bakarrik ez, guztion poltsikotik ere irten behar dela aldarrikatu nahi dute. Horregatik "Jar zaitetz abian-0,7 denok" izena jarri diote aurtengo kanpainari.

Harremanegoen Angolako proiektua bat dute eskuartean une honetan, eta udazkenerako proiektua bukatuta egongo dela espero dute. Helburua, hiru milioi biztanlerendako egin den osasun zentro bat egokitzea da. Arrasateko taldeak 5 milioi bilduko ditu zentrorako behar diren tresnak eta oheak erosteko. Arrasateko Udalak aurten 1.500.000 pezetako laguntza eman dio Harremani Angolako proiekturako.

Arrasateko bake epaitegiko langileak ere greban

Astean greba hasi dute Euskal Autonomi Elkartearen Justizia zerbitzuetako langileak, eta Arrasateko bake epaitegian ere greban daude. Langile bat epaitegian izaten den arren, behar beharrezko agiriak baino ez dira egiten Arrasateko epaitegian.

Soldatak Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen soldatekin pareka daitezela eskatu nahi dute grebaren bidez. Justizia zerbitzuak iaz transferitu zizkion Madrilek Gasteizi, baina Justizia zerbitzuko langileen lan baldintzak ez dira Jaurlaritzako funtzionarioen berdinak.

Hainbat dirulaguntza ematea onartu du Udalak

Astean egin den Gobernu Batzordeak zenbait dirulaguntza zuzendu du. Trikitixa Eskolari 100.000 pezeta ematea erabaki da, Trikitixa Eguneko gastuei aurre egiteko. San Frantzisko Xabier Ikastolak, berriz, 379.390 pezeta jasoko ditu Deba Garaiko Eskolen

arteko Abesbatzen Topaketen antolaketarako.

Itoizko Koordinadorak ere jasoko du Arrasateko Udalaren laguntzarik, 30.000 pezeta. SUDC elkarteak, azkenik, 2.626.500 pezetako laguntza hartuko du jubilatuen eguna eta atzeratuen eguna antolatzeko.



HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

**JESUSI ETXEBARRIA
MUSIKA ESKOLA**
1997-98 ikasturteko matrikula epea zabalik.

Maiatzaren 19tik ekainaren 18ra.
Solfeo, abesbatza, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta gitarra (azken hau modalitate guztietan, klasikoa, rock-a, blus-a, modernoa, etabar, solfeoz edo zifraz).
Iturriotz, 32 etxabea ARRASATE Tel.: 79 17 67

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

50 arrasatear ia bi hilabete greban Tavex-en eta Algodoneran

Ia bi hilabete pasa dira Bergarako Tavex-eko eta Algodonerako 240 langileek greba hasi zutenetik, eta horietatik 50 inguru arrasatearrak dira. Protesta ekintza gehienak Bergaran egiten dituzten arren, noizbait etorri izan dira Arrasatera auto karabanan.

Azken hiru urtetan soldatan igoyerarik ez dutelako hasi zuten greba langileek. Langileen esanetan soldatak izoztu dizkiete baina lantegietako produktibitateak ez du behera egin, eta horregatik, ezinbestekotzat jotzen dute solda-

ta igotzea. Horrez gain, inbertsioak Bergarako lantegietan egitea eta orain dela gutxi sartu diren langileek besteen baldintzak edukitzea ere aldarrikatzen dute grebalariek.

Herritarren eta sindikatuen babesa dutela eta, langileak itxaropentsu daude, baina zuzendaritzarekin izan dituzten harremanek oraindik ez dute emaitzarik ekarri. Akordioa lortu asmoz, astean hainbat bilera izan dute eta horietan ezer ez lortzekotan protesta ekintzak areagotuko dituztela aurreratu dute langileek.



Astean 55garren eguna bete dute greban Tavex eta Algodonerako langileek.

Iazko ur kontsumoa

Finantzaketa kanona kalkulatzeko, iazko ur kontsumoari buruzko datuak eskatu dizkio Ur Kontsurtzioak Udalarri. Udalak jakinarazi duenez, iaz 1.504.000 m³ ur kontsumitu zen herrian.

Biteri, Udalpe eta Loramendi kaleak asfaltatuko dira

Udalak aurten asfaltatuko dituen kaleak honako hauek izango dira: Biteri etorbidearen zati bat, Udalpe kalea eta Loramendi kalearen atzealdea. Guztira 4.987.000 pezetan gastatuko dira lan horiek egi-

ten, eta diru kopuru handiena Udalpen gastatuko da: 3 milioi inguru.

Hasteko kale horiek asfaltatuko dira, baina aurten badago beste batzuk asfaltatzeko asmoa ere.


Azatzako etxebizitzak

Uharkapeko horma egin aurretik, Azatzako etxebizitzaren zati batean egitura indartu zen, eta orain geratzen den zatia indartuko da. Obra horrek 35 milioi-ko aurrekontua du, eta orain Udalak obrak adjudikatuko ditu.



**ZARAYTZ
ALTZARIAK**

Olarte kalea, 35 • ARRASATE • Tel.: 79 28 44



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



**SARA
MERENDERUE**

Tel.: 58 50 25

Tel.: 77 15 86

**HIES
EKIMENA**

Astehlen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.


Tel.: 79 26 99



egizabal

**Oinetakoak
eta poltsak**

Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.



Ferrerias, 9 • ARRASATE
79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA
76 12 28



NEREA

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 79 13 43



**Bainujantzitan
espezialistak!**

GARAGARTZATIK SEVILLARA

Maiatzeko zubia Sevillan pasa zuten Garagartzako emakume guzti horiek. Badaezpada, guztiak kamiseta berdinarekin joan ziren baina zorionez ez

zen inor galdu. Itzeleko bidaia egin zutenez, hurrengoan nora joan pentsatzen hasiak ei dira Garagartzza aldean.



HANDIA



Kopia handiak (18x12) kalitate onenarekin.

EROSOA



Argazkiekin batera aurkibide praktikoa opari.

SEGUROA



Guztia gordetzeko artxibatzeako kutxa eder bat oparituko dizugu.

Argazki Denda
ARGAZKI DENDA
Urizarri etorbidea, 1
Tel.: 77 13 64
ARRASATE



AUTOBUS FOTOGENIKOA

Autobus modernoa eraman zuten Besaidekoek Pirineoetan izandako azken irteeran. Larrosa kolorekoa, normala baino luzeagoa eta argazkia ateratzeko orduan bera enfokatuta dagoen bakarra.



Rent a Car

Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12



AUTO TELEGIDATUEN IRABAZLEAK



San Andreseko jaietan auto telegidatuaren txapelketa jokatu zen, eta trebeenak argazkian ageri direnak izan ziren. Auto txikiak

gidatu behar izan arren, ez pentsa lan erraza izan zutenik. Izerdia atera behar da auto horiek behar moduan mugitzeko.

IZENAK

Aitor Orobengoa

da ARKOko lehendakari berria, Jose Jaime Bengoa ordezkatur.

Arrasateko Komunikabideen gainontzeko karguak

honako hauek dira: Leire Maruri lehendakari-ordea, Jose Mari Mujika diruzaina, eta Maria Lazkano idazkaria.



SANTA MARINA TXAPELDUN

Santa Marina elkarteak dira musean onenak. Ostiralean Torreperen kontra jokaturako finalean kostata baina eurak geratu ziren lehenengo.

Mus txapelketan 15 elkartek parte hartu dute, eta finalaren ostean denendako afaria izan zen.



ILUNA taberna



Elkano, 23
Tfnoa. 79 23 78

ALKANADRE

taberna

Kale Txiki, 5
Tfnoa. 79 20 46

TXANPI BODEGA

Gipuzkoa Etorbidea, 18
Tfnoa. 79 20 22

HOSTAL TABERNA JATETXEA

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tfnoa. 79 20 50

MENETA TABERNA JATETXEA

Gipuzkoa Etorbidea, 48
Tfnoa. 79 65 31

Zatoz!

TXINATO KAFETEGIA

Elkano kalea, 9
Tfnoa. 79 20 95

KAT *a* IDE JATETXEA

Plater konbinatuak
eta bokatak

Kataide poligonoa, 10 bis
Tfnoa. 79 60 10 / 77 10 80

JEY JULIWER

Elkano kalea, 36
Tfnoa. 79 22 11



ELKARTE KULTURALA

Zigarrola, 1
Tel.: 77 03 28

Basilio

Bakailoan
espezializatua

Gipuzkoa Etorbidea, 37
Tfnoa. 79 81 53

JUBILATUEN ELKARTEA

Gipuzkoa Etorbidea, 45
Tfnoa. 77 12 66

BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tfnoa. 79 16 99

IOSU KAFETEGIA

Elkano kalea, 25
Tfnoa. 77 03 66

LA ESTRELLA TABERNA KAFETEGIA

Elkano kalea, 3
Tfnoa. 79 20 82



Zatoz Musakolara, txo!
Hauetako tabernaren batetan
elkarrekin topo egingo dugu.
Sekulako giroa daukazu zain
Musakolan !

Astoak arrantzaka, ze erremedio!

Musakola edo Astoniako jaiak San Isidro egunaren inguruan. Astoa dute ezaugarritzat auzo horretakoek, baina Musakola osoan ez dago asto bakar bat ere, lau hankorik behintzat. Ez da arraroa, Arrasaten zortzi asto besterik ez daude eta: bost Bedoñako Artia baserrian, eta bana Gesalibarko Mendiguren eta Enuzketa baserrietan, eta Uribarri auzoko Larratxun. Asto-orro edo arrantza gutxi inguruetan, denbora asko ez dela baino askoz ere gutxiago.

ASTOA BERE ERRITMOAN

Hogeitamar urtetik gorakoek oraindik ondo gogoan dute baserritarraren eta astoaren irudia herriko kaleetan barrena. Batzuk egunero jeisten ziren baserritik, errotarako bidean edo erosketak egitera; beste batzuk, berriz, feria edo azoka egunetara mugatzen zuten euren ibilalditxoak. Goizean goiz jaiki, asto banastak jari abereari, kargatu, kalera jeitsi, astoa lotu kantalen baten edo horretarako gertatuta zeuden kortetan, eta eginbeharretara.

Deskribatutako imajinaren jabe askotxo izango dira oraindik herrian, baina asto-korten berri zaharrenek bakarrik izango dute, asko eta asko gerra



Librean dabilta gaur egun baserrietako asto gehienek, aparteko lanik egin barik.

aurrekoak dira eta. Bedoñako baserritarrek Labekuen lotzen zituzten astoak, Zerkaosteta kalean; Udalakoak, Meatzerekkakoak eta Garagartzakoak, berriz, Zarugaldeko okindegiaren parean, Konkonekoan; Musakolakoak, azkenik, Maa-

lako okindegiaren ondoan. Asto-korta horietan moduan, Gurea parean bazegoen astoak uzteko tokia. Astoa lotuta uzteaz gain, ondo zainduta izan nahi zuenari, zerbait ordaintzea beste erremediorik ez zitzaion geratzen. Pagamenduko bi kor-

ta gutxienez ba ei zeuden, bata Bar Lorenzokoa, San Baleixona; bestea Leturiatarrena.

Toki batean edo bestean edukita, kaleko zeregina bukatutakoan berriro etxerako bidea hartzen zuen baserritarrak bere astoarekin, batzutan oinez asto-

aren aurretik eta beste batzuetan gainean, lasai lasai jarrita. Argi dagoenez, beste modu batean bizi zen jendea orduan, beste lasaitasun batekin. Imagina zelako patxada! musika bandari Ferrerías kalean sartzera behin baino gehiagotan gertatu ei zitzaion ezin pasatu izana astoen artean. Barregarria izan daitekeen pasadizoak bizitzeko beste modu bat azaltzen du, bueltatuko ez dena.

Izan ere, denboraren gurpilek ez dute geratzeko ohiturarik, erritmoa markatzen dute, eta erritmo horri jarraitu behar aurrera egin behar bada. Herriko adokin apurretan ez da dagoeneko asto-apatxen hotsik, autoen gomazko gurpilenak dira nagusi; baserrietan antzera, han-hemenka entzun daiteke asto arrantzaren bat, baina gehienbat makina zaratak nabarmen nabarmen. Denborak makina darama aurrera, astoa atzean utziz. Garapenaren izenean, desagertzeko arriskuan dago denbora asko ez dela baserri denetan normal normala zen astoaren irudia.

BOST ASTO ARTASIAN

Sarreran esan moduan, bada oraindik baserrietan bakarren bat edo beste. Bedoña auzoko Artia baserrian, esaterako, 30en bat urte egon dira asto barik, eta orain bost dauzkate. "Kalerako bidaia bukatu zenean kendu genituen astoak, ez zegoen beste arrazoirik. Gero lanerako makinak etorri ziren eta baita autoa ere. Ez zegoen astoen beharrik". Gregori Markaide da berba horien egilea, Artia baserrikoa. Orain hiru urte Santa Lutzia feriara joan eta tratua eginda astar batekin bueltatu zen, *Lutxio* izenekoa. *Lutxio* bera da Artiako zelaietan dabiltzan bost astoetatik izena duen bakarra, akaso lehena izan zelako edo akaso deituaz gero eskura etortzen den baka-

rra delako. "Lehen lanean ibilitakoa da *Lutxio*, ikasitakoa. Horregatik etortzen da eskura. Beste laurak bertan jaiotakoak direnez beti ibili izan dira zelaietan. Normalean ez dira arimatzen, gainera astoa berez ez da fidatzen den animalia". Hainbeste urte asto barik egonda, apur bat harritzekoa ere bada derrepentean bat ekarri eta gainera familia ugaritzen utzea. "Edadean aurrera goaz eta behiek eta



Imagina zelako patxada! musika banda Ferrerías kalean behin baino gehiagotan asto artean pasa ezinik ibiltzen zen.



GregoriMakaidek bost asto dauzka Artian, orain hiru urte Santa Lutzia ferlan bat erosi eta gero.

horrelakoek lan handia ematen dute. Astoak eman ez du ezer ematen, ezta lanik ere, baina zelaia garbi edukitzeko pri-

merakoa da. Zorte apur batekin urtero astotxo bat eman dezake, besterik ez. Pega bakarra dauka, astoa dagoen tokian erromara on samarrak behar dira alde egin ez dezan. Noizbait zabalik utzi izan dut bakarren bat, jakina, astoek hanka. Bila joan behar gero, eta asto hauek harrapatzeko lagun bakarrak ezin, bi behar dira gutxienez". Artia inguruko zelaietan libre antzean dauzkate astoak, bertan pasatzen dute denbora gehiena. Dena dela, eguraldi txarra egiten duenerako tejabana ere jarri behar izan diete astoei, babesen bat izan dezaten. Egon gutxi egongo dira, baina dauden astoak lehen baino hobeto bizi direla

esaten du Gregori Markaidek. "Lana egin barik bizi dira. Astarra bai, hori makinatxo bat egindakoa da. Neu ere ibilita nago Lutxio burdin-lerara lotuta lurra lantzen. Indartsua da eta orain ere beharrik bage-nu egingo luke horrek".

Gregorik egin egingo luke-ela dion arren, Artiako astarrak ez du bizi izateko horren beharrik gaur egun. Duela 30 urte Artian bertan eta Mondragoeko baserrietan zeuden astoen egunak beste modu batekoak izaten ziren. "Astorik gabeko baserririk ez zegoen orduan, kalera joateko, errotarako bidea egiteko, edo lurra lantzeko ondo estimatua zen astoa. Zenbat aldiz jaiki ete naiz goizean goiz, asto-banastak jarri astoari, ortuan ateratako barazkiez eta esne-marmitez kargatu eta kalerako bidea hartu. 40-60 kilo inguruko karga eramango zutela pentsatzen dut. Generalean bakoitza geure aldetik joaten ginen, baina sarritan, azokakoa edo errotakoa bukatutakoan, gorakotan elkarrekin etortzen ginen ingurukook. Baserriar denok astoaz jaisten ginen orduan eta kaletarrak, behin baino gehiagotan protesta

ere bota zuten, Zerkaostetan egoten ziren astoen zaratagatik eta usainagatik".

Lehen esan bezala, aspaldi utzi zioten Artiakoek kalera astoaz jaisteari. Dena dela, astoa garraiotarako erabiltzen zuen azken baserritarra ere Bedoñakoa zen, Zabale baserrikoa. "Oso oker ez banago, azkena Zabale baserriko Gregori izan zela esango nuke, Gregori Agiriano. Beste batzuk famatuak ere bazeuden, esate batera Bioso baserriko *Piloto*-sen astoak ez zuen inoren laguntzarik behar etxerako bidea aurkitzeko, bakarrik moldatzen zen. Askok esaten dute astoa ohitura fijoko animalia dela, baina gureek ez zuten etxerako biderik ikasi".

ETORKIZUNIK EZ ASTOENTZAT

Jaietan asto-lasterketetan edo asto-janen bat antolatzen denean, bestela nekez ikusten dira astoak herrietako kaleetan. Gregoriren berbetan oraindik inork ez du eurengana joan asto eskean, ez gauza baterako eta ezta besterako ere, baina bera janda dago asto okela. "Oso goxoa da. Etxeko bat aprobetxatu genuen horretarako, etxekoa izan barik ez nuke probatuko. Saldu? Ez dakit, asto txikia 10.000 pezeta inguruan saldu daitekeela uste dut, baina erostera inor etorri ez denez... Subentzionatu egin beharko lukete astoa edukitzea, gainera hauek, txikitxo hauek, bertan jaiotakoak dira, autoktonoak".

Subentzioak eduki edo ez, astoak ez du sasoi batean zuen tokia berreskuratuko. Bere beharrik ez dagoenez, gero eta gutxiago ikusiko da, seguru. Bitartean Astonian ezaugarri izaten jarraituko du, nahiz eta auzoan asto bakar bat ere ez egon, lau hankakorik behintzat. ■

Beñardo Kortabarría



Zelako egarria!

Garaipen egarriz daude Zaldibarko jokalariek. Hirugarren fasea bukatzeko falta diren neurketak hil ala bizikoak direla jakin badakite, beraz horrek dakarren tentsioa nabarmen ari da igertzen kantxan. Eta hemendik aurrera gainera gehiago!

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Fosforos	1	1	0	0	8	3	2
Diego antonio	1	1	0	0	5	3	2
Insert Coin	1	0	0	1	3	5	0
Betrayer	1	0	0	1	3	8	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Galartza Kont	1	1	0	0	6	0	2
Naranaj Mekanika	1	1	0	0	11	2	2
Aurrera Bolie	1	0	0	1	2	11	0
Kk Jaurilaritzari	1	0	0	1	0	6	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Cerve Leintz	1	1	0	0	7	3	2
Irati STS	1	1	0	0	3	2	2
AC Surcos	1	0	0	1	2	3	0
MSM Ing Integral	1	0	0	1	3	7	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Sokoakoak	1	1	0	0	6	3	2
Sortu Informatika	1	1	0	0	3	2	2
Orlando piratas	1	0	0	1	2	3	0
Nuevo taberna	1	0	0	1	3	6	0

Aldi/ibi
Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Hurrengo partiduak

3. fasea Bigarren Ihardunaldia

Maiatzak 17, Zapata

Zaldibar

- 11.00 Irati STS - MSM Ing Integral
- 12.00 Galrtza Konte - Aurrera Bolie
- 16.00 Sortu Informatika - Sokoakoak
- 17.00 Fosforos - Diego Antonio
- 18.00 Cerv Leintz - AC Surcos
- 19.00 Naranja Mekanika - KK jaurilaritzari

Maiatzak 18, Igandea

Zaldibar

- 11.00 Nuevo taberna - Orlando Piratas
- 12.00 Insert Coin - Betrayer

Laburrak

■ ABISUA ETA ZIGORRA

Insert Coin eta Diego Antonioren arteko partiduan tangana egon zenez, antolakuntzak abisua eman die. Hurrengoan talde biak kale-ra joan daitezke. Bi partiduko zigorra berriz, Insert Coin taldeko Unai Agirrebeñak jaso zuen.

■ ZENBAT GOL?

Pasa berri den asteburua ez da bat ere ona izan ez jokoari begira ezta arbitraien aldetik ere. Hainbat partidutan epaileen jarrera txarra izan delako arazoak eta haserreak egon dira.

Emaitzak

A taldea

Fosforos 8 - Betrayer 3
Insert Coin 3 - Diego Antonio 5

B taldea

Naranja mek. 11 - Aurrera Bolie 2
Galartza Kont. 6 - Kk Jaurilari. 0

D taldea

Irati STS 3 - AC Surcos 2
Cerve Leintz 7 - MSM Ing Int. 3

E taldea

Nuevo Taberna 3 - Sokoakoak 6
Sortu infor. 3 - Orlando Piratas 2

Uribe auzoko txapelketa

SAILKAPENA

A taldea

1- Amuebl. Zarautz.....	12
2- Flujos Secos.....	10
3- Jako al rey.....	10
4- Balon Rojo.....	8
5- Niva Vin.....	8
6- Babajana Sexy.....	6
7- Astoen Villa.....	6
8- DZV.....	4
9- Ford Publicop.....	4
10- Pajax Amsterdam.....	2
11- Sambuka Porretas.....	0

B taldea

1- Gallinero.....	14
2- Mucho Morro.....	10
3- Munar fool.....	8
4- Elisabeth.....	8
5- Rotor de Bolb.....	8
6- Argi PLastic.....	8
7- Blind.....	6
8- Ale alee.....	2
9- Sartuixokfuerte.....	2
10- Astonia.....	2
11- Manchester Fum.....	2

D taldea

1- Nuevo taberna.....	14
2- Lso Invalidos.....	14
3- Doble Cero.....	10
4-DKB.....	6
5- Alai Gozokiak.....	6
6- Molokai.....	6
7- Mendizabal Okin.....	6
8- Ainarexia.....	5
9- Makai.....	2
10- AT Barbate.....	1
11- Piernodoiuna.....	0

E Taldea

1- Borrock´n Roll.....	12
2- Dribling.....	10
3- Ke Oxtias.....	10
4- Ganbelas.....	8
5- Bortxitxak.....	8
6- La mosca gao.....	6
7- Lautherbrunen.....	6
8- Viboras.....	6
9- Gerondos de Borregos.....	2
10- Auri.....	2
11- The Pepe Wolsvagen.....	0

F taldea

1- Hirei.....	11
2- No hay mus.....	10
3- Leya.....	9
4- Equs BTR.....	9
5- Komando alpargat.....	8
6- Ojo avisore.....	8
7- Lso Innombrables.....	7
8- Sobredosis de Txeira.....	4
9- Decima victima.....	2
10- SGK.....	0
11- 666.....	0

HURRENGO PARTIDUAK

Maitzak 17, Larunbata

Iturripe A

9.00	Hirei - SKG
10.00	Molokai - Ke Oxtias
11.00	Ganbelas - Ke Oxtias
12.00	Astonia - Munar Fool
13.00	Babajana S - Jako al rey
14.00	666 - Sobredosis de Txeira
15.00	Viboras - La mosca gao
16.00	Mendizabal Okin - AT Barbate
17.00	Elisabeth - Rotor de Bolbogrado
18.00	Flujos Secos - Niva Vin
19.00	Astoen Vila - Sambuka porretas
20.00	Leya - Komando alpargat

Iturripe B

13.00	Lautherbrunen - Bortxitxak
14.00	Piernodoiuna - Makai
15.00	Blind - Mucho Morro
16.00	Ojo Avisore - Equs BTR
17.00	No hay mus - decima Victima
18.00	Dribling - Borrock´n Roll
19.00	Los Invalidos - Nuevo taberna
20.00	Manchester Fumaited - Ale alee

Maitzak 18, Igandea

Iturripe A

10.00	Ainarexia - Doble cero
11.00	Sartuixokfuerte - Argi plastic
12.00	Pajax de Amsterdam - Ford Publicop
13.00	Amueb Zarautz - DZV

EMAITZAK

A taldea

Pajax De Amsterdam 1 - Amuebl. Zarautz 3
Balon Rojo 9 - Ford Publicop 6
Flujps Secos 9 - Sambuka Porretas 2
Babajana Sexy 2 - Niva Vin 4
Jako al rey 9 - DZV

B taldea

Manchester Fumaited 4 - Sartuixofuerete 2
Gallinero 7 - Ale Alee 3
Elisabeth 2 - Mucho morro 4
Astonia 2 - Rotor de bolbogrado 12
Munar fool 0 - Argi plastic 9

D taldea

Lso Invalidos 2 - Ainarexia 1
Alai Gozokiak 5 - Nuevo taberna 8
Mendizabal Okindegia 2 - Makai 1
Molokai 8 - AT Barbate 1
DKB 2 - Doble Cero 6

E taldea

La mosca Gao 3 - Borrock´n Roll 4
Bortxitxak 0 - Ke Oxtias 5
Lautherbrunen 1 - The Pepe Wols 0
Viboras 5 - Gerandis de Borregos 4
Ganbelas 8 - Auri 1

F taldea

Ojo Avisore 3 - No hay mus 11
Lso Innombrables 4 - Equs BTR 8
666 0 - Komando Alpargat 10
Hirei 4 - Sobredosis de Txeira 3
SGK 3 - Decima Victima 8

Nesken futbitoia

EMAITZAK

Matildax 5 - Satanklax o
leup 2 - Shaktale 4
Izenbakuak - Joixon Bertan (Atzeratuta)

HURRENGOAK (San Viator Txikin)

10.00 Satanklax-Shaktale
11.00 Izenbakuak-leup
12.00 Matildax - Joixon Bertan

SAILKAPENA

1- MATildax	4 puntu	4- Izenbakuak	0 puntu
2- Satanklax	2 puntu	5- leup	0 puntu
3- Shaktale	2 puntu	6- Joixon Bertan	0 puntu

Xaje jokalaria

JON PEREZ

“Irabazitako partida motzenak lagunen kontra izaten dira”

— Xakean jokatzeko inteligentea izan behar da?

— Jokalari ona izateko berezko gaitasuna, kontzentrazioa, intuizioa eta ezagupen teoriko ona behar dira; gainera psikologikoki fuertea izatea, egoten diren presioak gainditzeko. Inteligentea? Jendeak xakea joko zail moduan ikusten du, horregatik diote inteligenteen jokoa dela baina egia esateko jende normalak jokutzen du.

— Noiztik xake taldean?


— Zortzi urte dela lokalera inguratu, gustatu eta harrez gero nago taldean. Orain 30 lagunetik gora gaude. Taldekook urtean zehar Gipuzkoako taldeen liga jokutzen dugu. Uda aldean berriz, txapelketa azkarrak egoten dira herrietan. Arrasaten horrelako txapelketak ere antolatzen ditugu, eta Santamasetan xake txapelketa. Euskadiko onenak etortzen dira bertara.

— Zelako maila dago herrian?

— Euskadin, Katalunian eta Madrilan dago maila onena. Arrasaten eta Aretxabaletan ere ezin gara kexatu.

— Ze jende mota dago taldean?

— Adin eta maila guztietako jendea. Hori dela eta, norbait animatuta balego beldur barik San Andresko Errebuelta kalean dagoen lokalera joateko esango nioke. Xakea gustatzen bazaio ez da damutuko.



ATLETISMOA Urrezko domina errelebotan




Ibai Juradok, Unai Sarabiak, Jonathan Perezek eta Oscar Gabilanek urrezko domina lortu zuten Gasteizko Mendizorrotzan egin zen Taldeen arteko Euskadiko Errelebo Txapelketan. 4X100 proban 47 segundu denbora lortu zuten arrasatearrek. Sailkapen nagusian beraz, Arrasate jaun eta jabe, bigarren Urdaneta 47'29 denborarekin eta hirugarrena Ortueta taldea 4. postuan geratu zen 2 minutu eta 39 segundurekin. Lasterketa horretan Fernando Nogales, Iñaki Juez, Unai Sarabia eta Jonathan Perez izan ziren.

IGERIKETA Aletarekin uretan



Probintzien arteko Aletadun Igeriketa Txapelketa jokatu zen zapatuan Musakolako igerilekuan. Arrasateko ordezkariak Ane Lopez de Bergara, Olaia Murua, Eneritz Jauregi, Esther Gomez eta Beñat Zabala. Ur gainera 50 metro-tan Eneritz Jauregik bosgarren postua eskuratu zuen juniorretan laugarrena izanik. 200 metro-tan Ane Lopez de Bergara bigarrena izan zen eta distantzia berean Beñat Zabala hirugarrena gizonetakoetan.

SASKIBALOA Bigarren mailara



Urbina Maltzagak ezin izan zuen Pinturas Lepanto taldearen kontrako neurketa irabazi eta


ondorioz bigarren mailara jeitsi da. Arrasatearrak ondo hasi eta markagailuan aurretik jarri arren, bigarren zatian gauzak okertu eta galdu egin zuten 80 eta 95. Taldea bigarren mailan dago baina okerrera ez da mailaz jeistea kirol honen etorkizuna zalantzan egotea baizik. Zuzendaritza batzordekoek ekainean kargua utzi behar dutela iragarri dute eta oraindik ez da ordezkatzeko inor aurkeztu. Egoera honek aurrera jarraituz gero, Arrasate kompetitzioko saskibaloia barik gel daitete.

ESKUBALOA Loiola aurrean



Arrasate eskubaloi taldeak 26 eta 22 galdu zuen Alleruren kontra eta zapatu honetan Loiola izango du arerio Loiolan. Kopako azken aurreko neurketa izango da.

FUTBOLA Mondra zapatuan



Preferente mailako Mondrak Zarautzen bisita jasoko du zapatuan arratsaldeko 6etan Atxabalpen. Jarrantzaileen aurrean jokatu duten denboraldiko azken partidua izanda, zer hobeto garaipen bat lortzea baino. Gainera ez da ahaztu behar Mondrak oraindik promozioa jokatzeke aukera ere izan dezakeela. Emakumeek Ikasi izango dute nor baino nor domekan arratsaldeko 5etan Atxabalpeko belarrezko zelaian. Mondrako jubenilek eta Beraunek elkarren kontra jokatu dute zapatuan arratsaldeko 4etan Atxabalpen.

Udalekuak 97 ARRASATEN



UDALEKUAK HERRIAN
(6-12 urte)
udakanpada uztailean
(goizez eta arratsaldez)



Aurten
jangela
zerbitzua!

Aukeratu zure
oporrak
Txatxilipurdin!

BILIN-BOLOKA
94. urtean jaiotakoak
uztaila (goizez edo
arratsaldez)

BABYLEKUAK
(3-5 urte)
uztaila (goizez edo
arratsaldez)



Udalekuak 97 KANPOAN

EUROPARI BIRA
(16-18 urte)
ABUZTUAREN 4tik 17ra

GAZTEAK GARAIORA
(14-16 urte)
uztaileko bigarren
hamabostaldian

UDALEKUAK GARAION
(10-12 urte)
uztaileko lehen
hamabostaldian

ASTEBETE KOSTALDEAN
(Ondarru)
(12-14 urte)
uztaileko bigarren
astean

**MUGI-MUGI
IPARRALDERANTZ**
(Zuberoa)
(12-14 urte)
uztailaren 11tik 21era

Informazio gehiagorako deitu
79 54 46 telefonora.



ABELINO ARGUELLES, LUIS BRAÑA eta MANUEL CORUJO (DURO FELGUERA)

“Gobernuak bere konpromisoak fruturik emango balu, Asturiaseko langile guzti-entzat exenplu izango ginateke. Langileon borroka lanpostua defenditzeko arma dela zabal- tzea ez zaio batere interesa- tzen gobernuari.”

Ez dutela borrokan etsi-ko esaten dute, eta begietan ikusten zaie egia diotela. Duro Felguera enpresa asturiarretik kanporatutako langile hauek, greba, manifestazio, sabotai eta poliziarekin enfrontamendu zenbaezinak bizi izan dituzte azken lau urteotan. Ovidoko katedralean lau langilek 145 eguneko itxialdia daramate. Horren berri ematera etorri ziren Arrasatera, Monterronen eskainitako hitzaldi baten bidez.

- Duro Felguerako langileen borroka aspalditik dator...

Argüelles: Bai. 93an, 232 langile kanporatu zituen enpresak eta urte osoan mobilizazio ugari egin genuen, horien artean 52 eguneko gose greba. Langileen borrokari esker,

sindikatuak, gobernu asturiarren eta Duro Felguera enpresaren arteko akordioa sinatu zen 94an. Kanporatutako gehienak enpresak hartu zituen berriro eta besteak aurrejubilatuta egin zituzten. Enpresak berriro kontratatu ez zituen 40 langileak, Asturiasko enpresa publikoetan berkolokatzeko konpromezua hartu zuen gobernuak baina oraindik ez du bete.

- Zergatik?

Corujo: Arrazoi politiko eta sozialak daude bere jarra horren atzean. Garai txarrak datoz Asturiasko industria-entzat eta seguraski kanporaketa ugari egongo da. Gure borro-

kak fruturik emango balu, Asturiaseko langile guzti-entzat exenplu izango ginateke. Langileon borroka lanpostua defenditzeko arma dela zabal- tzea ez zaio batere interesa- tzen gobernuari.

-Langileak berkolokatzeko epearen barruan gobernuak aldatu zen. PPrekin gauzak

aldatu dira?

Argüelles: PPk PSOEekin egindako akordioa errespetatuko zuela esan zigun, baina ez du sinatutakoa bete. Apirilean Asturiasko parlamentuak akordia betetzearen alde bozkatu zuen, baina itxuraz demokraziak ez du ezertarako balio. Denbora aurrera joan ahala, akordioa beteko ez zute-

“ Asturiasko langileentzat exenplu izango ginateke. Langileon borroka lanpostua defenditzeko arma dela ikustea ez zaio interesatzen gobernuari”



FELGUERAKO LANGILEAK)

“onezua bete arte gu tinko”

la ikusita, mobilizazio ezberdinak eta itxialdi gogor bategi-tea erabaki genuen. Oviedo-ko katedraleko kanpandorrean entzerratu ziren bost lagun. Brañak, bihotzeko arazoengatik gutxi dela utzi zuen.

- Lau langilek 145 egun egiten dute gaur itxialdian. Zein egoeratan?

Braña: Baldintzak benetan oso gogorak dira. Beharrezko gauzak soka batekin igotzen dituzte. Kaka poltsetan eta txiza tubo baten bidez kanporatzen da. Dutzarik ez dago. Neguan, sei gradu zero azpitik jasan genuen. Txarre-na familia eta lagunak ezin ikustea da.

-Indarrez kaleratuko zaituzten beldur zarete?

Braña: Fujimorik egin zuena ikusita, ez ginatke harrutuko Sergio Marquésen Asturiaseko presidentek berdina egingo balu, faxista bat

da eta. Hori bai, itxialdian daudenak, ondo prestatuta daude edozein erasori aurre egiteko eta argi daukate ez dituztela handik aterako modu baketsuan. Kanporatze baten kasuan, aurre egingo diete gure lagunek eta, batek esaten zuen bezala, alde batetik edo bestetik hildakoak egon daitezkeela argi daukagu. Kanpandorreko eskailerak ez du barandilarik eta oso arrisku-tsua da. Dena den, alarmak jarri dituzte eta gauero batek guardia egiten du.

- Zuen borroka apurtzeko saiakerarik egin du gobernuak?

Braña: Lau hilabete dira dagokigun soldata jasotzen ez dugula. Poliziak jarraipen estua egiten digu, egunez eta gauez edozein tokira jarraituz. Salbuespen egoeran bizi garelako ematen du. Presionatu egin nahi gaituzte borroka uzteko, baina ez dute lortuko.

- Jendearen laguntza jaso duzue?

Braña: Duro Felguerakoa

ez da gatazka bakarra, Nalon araneke eta Asturiasko industria txarrera doa eta. Asturias, paradisu natural egin nahi dute, baina norendako? Jendeak horrela ulertzen du eta mobilizazioetara etortzen da. Gure emakumeek ere izugarri lagun du digute. Ez da horrela gertatu sindikatuekin. Itxita dauden lagunen manutentzioaz aparte, ez dute ezertan lagun du. Sinatu duten lan erreformarekin dena esanda dago.

- Nola ateratzen dituzue aurrera familiak?

Corujo: Jendearen lagun-tzarekin erresistentzia kutxa bat egin dugu aurrera segitzeko. Makrokontzertuak, festak, eta ekintza ezberdinak antolatzen ditugu familia aurrera ateratzeko. Egoera ekonomiko larrian bagaude ere, ez dugu etsiko eta hori garbi izan behar dute politikoei. Gure lema, tinko irautea da eta horrela jarraituko dugu. ■

“Kanporatze baten kasuan, aurre egingo diete gure lagunek eta, batek esaten zuen bezala, alde batetik edo bestetik hildakoak egon daitezkeela argi daukagu.”

ERRENTA AITORPENA 96


Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**

Basabe Industrialdea, Pab. C • ARETXABALETATel.: 79 88 75 / 79 75 99 • Faxa: 77 10 29



TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



Monterrongo informatika gelan Interneten nabigatu ahal izango da

Denbora gutxi barru Monterrongo informatika gelan Internet sarean nabigatzeko aukera izango da. Mikel Aretxagak, informatika gelako arduradunak esan duenez, Internet sarea jartzeko proiektua, 1996ko urrian informatika gelaren berrantolaketa egin zutenean sortu zen. Iazko abenduan berriz, liburutegiko barne erabilpenerako jarri zuten sarea eta orain bazkide guztiei zabaldu nahi zaie zerbitzuaren aukera.

ESPERIENTZIA PILOTOA

Hasieran esperientzia pilotu moduan jarriko da Internet sarea. Hiru hilabeteko epean, sarearen erabilpena nolakoa den ikusi eta gero erabakiko da zerbitzuak martxan jarraituko duen edo ez, eta funtzionamendu arauak aldatu behar diren edo ez.

Mikel Aretxagak argi utzi nahi izan du Internet zerbitzuak informatika gelaren zerbitzu osagarri bat izan behar duela, eta ez ordeko zerbitzu bat. Hori horrela izan dadin, gaur egun informatika gelan dauden 14 ordenadoreetatik lau egongo dira konektatuta sarera.


Interneten nabigatzeko arau berezirik egongo ez bada



ere, gainontzeko ordenadorekin ez bezala, gutxienez 16 urte izan beharko dira sarean sartzeko. Betebehar hau esperientzia pilotoa irauten duen bitartean exigituko da, baina gero baliteke aldatzea.

ONARRIZKO AZALPENAK

Aretxagak esan duenez, Internet zerbitzua erabili nahi duenari eta beronen funtzionamendua ezagutzen ez duenari, oinarrizko azalpenak emango zaizkio, hau da, printzipioz ez dago ikastarorik antolatzeko asmorik. Bestalde, azalpenetan denbora asko ez galtzeko, serbidoreen fun-



Mikel Aretxaga, Monterrongo informatika gelaren arduraduna.

tzionamendua ezagutzeko interesa dutenen artean talde txikiak egin eta azalpen batoratuak eman ahal izango direla esan du Mikelek.

POSTA ELEKTRONIKORIK EZ

Informatika gelako Internet zerbitzu berriak ez du posta elektronikorik izango. Horren arrazoia informatika gelan dagoen sarearen konplexutasunean dago. Informatika gelan telefono linea bakarra dago bost ordenadoreendako, hau da, ordenadore batean idatzi daitekeen gutun elektronikorik bat beste ordenadore batean dabilen batek irakurri ahal izango luke eta alderantziz. Beraz, posta ez litzateke pertsonala izango.

Mikel Aretxagak esan duenez, Internet zerbitzuak harrera ona izan dezake, informatika gelara doan jendea azken hilabeteetan zerbitzua eskatzen ari dela kontuan hartzen bada.


Bestalde, informatika gelaren gainontzeko zerbitzuek duten harrera ona aipatzeko modukoa da. Iazko urtean, esaterako 6.000 lagunek baino gehiagok erabili zuten informatika gela. Arduradunaren ustez, oso kopuru baimkorra da aipatutakoa.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

RAKEL PEREZ DE ARENAZA

“Nire bizitza hemen dago, horregatik margotzen ditut inguruko paisaiak”

Rakel Perez de Arenaza arrasatearrak bere lehen margo erakusketa jarri du Harresi Aretoan. Ez zaio bere estiloa definitzea gustatzen, ikasi duenetik ateratzen zaiona margotzen duela esaten du eta. Guztira 28 margo dira ikus daitezkeenak: batzuk oleoan eta beste batzuk plumilaz eginda.

— Margotzeko afizioa berezkoa duzu ala familiaratik datorkizu?

— Egia esateko, nire aitak margotu egiten zuen eta baliteke afizioa harengandik etortzea. Gogorazten dut txikitan arkatzeekin marrazkiak egitea gustatzen zitzaidala. Margotzea berriz ez nuen oso gustoko.

— Zeintzuk izan dira zure irakasleak?

— Sta. Teresako zentruan hasi nintzen Bingen de Pedrorekin. Gero Juaristirekin jarraitu nuen Arrasateko Margolari Taldean.

— Nongo paisaiak dira margotzen dituzunak?

— Ingurukoak. Nik zera pentsatzen dut: nire bizitza hemen dago eta oso identifikatuta sentitzen naiz inguru honekin, beraz, inguruko paisaiak margotzeko gogoia berezkoa dut, naturala.

— Baduzu txoko faboritorik?

— Ez. Gainera, egunaren arabera, paisaia bat modu desberdinean ikusten da. Argiak, urtarok... paisaia bera desberdin ikustera eramaten zaituen faktore asko dago.

— Urtarorik gustokoena?

— Udazkena, duda barik. Zuhaitzek eta mendiek kolore berezia izaten



dute, mila kolore. Udan eta udaberrian kolore ia bakarra egoten da: berdea.

— Plumilaz ere marrazten duzu. Zer duzu nahiago?

— Plumila marrazkiak egiteko da eta oleoa margotzeko. Oso gauza desberdinak dira. Plumilaren teknika nire aldetik ikasi dut eta marrazki bat egiten hasten naizenean beste guztiaz ahazten naiz.

— Erakusgai jarri dituzun koadroak baino gehiago izango dituzu...

— Bai, askoz ere koadro gehiago dauzkat etxeko ganbaran gordeta. Egia esan, ez dakit zenbat... gertatzen zait koadro bat hasi eta ondoren utzi egiten dudala aspertu egiten naizelako. Denbora batera berriz hartzen dut. Gertatzen da ere, margolari moduan eboluzio bat sofritzen duzula eta ondorioz aurrez margotutako koadroak gaizki eginda daudela iruditzen zaizula. Margolaria beti ari da ikasten.

aste gazte

■ BEKAK

• “Turismo en España 97” bekak, Estatuan nahiz Europan hezkuntza, ikerketa edo lan praktikoak burutzeko. Epea: ekainak 1.

■ LANA

• Barakaldoko Kirol Institutuak kirol teknikari lanpostu bat deitu du. Epea: maiatzak 22.

• Aretxabaletako Udalak erdi mailako kirol teknikari lanpostu bat deitu du. Epea: maiatzak 25.

• Zizurkilgo Udalak liburuzain lanpostu bat deitu du. Epea: maiatzak 25.

• Peraltako Udalak gizarte langile bat behar du. Epea: maiatzak 28.

■ LEHIAKETAK

• Arrasateko San Juan Jaiak 1997 kartel lehiaketa. Epea: maiatzak 23.

• San Juan jaietarako aterako diren kamisetarako marrazkia aukeratzeko lehiaketa. “Geu gara garra” lema eta “San Juan Jaiak 97” testua idatzita agertu behar dira. Zuri-beltzean, formato librea. Lan guztiak sarituko dira. Bozetoak aurkezteko azken eguna: ekainak 2.

• Bergarako Jardunen eskutik, V. Komiki lehiaketa antolatuta da. Epea: ekainak 6.

• Estatuko Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritzak, arrazakeria gaitzat hartuta, argazki lehiaketa antolatuta du. Epea: ekainak 9.

• Eusko Jaurilaritza, Enpresa Sortzeko Gazteendako XII. Ideia Lehiaketa antolatuta du. Epea: irailak 19.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Rakel Perez de Arenazaren oleoak eta plumilak maiatzaren 18ra arte Harresin.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Aretxabaletan pisua salgai. Erreformatuta eta erdi jantzita. Tel.: 79 25 71. Dei egin denda ordutegian.

• Juan Carlos Gerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.

• Etxebizitza salgai Torrepe dorrean. Tel.: 79 61 68.

• Larrea plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 26 34.

• Zarugalde kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 63 22.

2. Erosi

• Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

• Duplex-a alokatzen da Zarautzen. Txukuna eta hondartzatik 200 metroa. Prezio egokia. Tel.: 83 56 36.

• Pisua alokatzen dut erdialdean. Tel.: 79 59 96. Dei egin Betatik aurrea.

• Ezkaray-en pisua alokatzen da uztaile eta irailean. Oso ondo prestatutako urbanizazio baten (pizina, tenisa, umeendako tokia...) Tel.: 79 31 56.

• Peñiscolan pisua alokatzen da uztailean eta abuztuan. Tel.: 77 05 88.

• Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.

4. Errentan hartzeko

• Alokatzeko pisu bila nabil Arrasaten. Tel.: 79 77 32 / 79 97 55.

• Etxebizitza alokatuko nuke ahal balditz Zigarrolan. Tel.: 79 02 66. Igone.

• Arrasaten pisu bila nabil. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan ordutan. Amaia.

5. Etxe konpartituak

• Pisu konpartitu baten gela bat nahi dut. Tel.: 79 96 10.

• Pisua osatzeko laguna behar dugu.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi

14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi

25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Eskola Politeknikoaren ondoan. Tel.: 77 05 00.

• Konpartitzeko edo alokatzeko etxe bila nabil. Tel.: 79 99 82. Iñaki. Gauez.

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

GARAJEAK

7. Saldu

• Jose Luis Iñarra kalean garajea salgai. Tel.: 79 36 69.

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Garaje itxia alokatzen da Uribarri etorbidearen 3an. Tel.: 79 33 48.

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Garajea errentan emateko daukat Kontzeziñon. Tel.: 79 55 20.

LOKALAK

12. Saldu

• Musakolako kiroldegia ondoan lokal komertziala salgai. 76 m². 8.300.000 pta. Negoziazarriak. Tel.: 79 59 75.

• Kalealdean, baina Zarugaldeetik gertu lokala salgai. 100 m². Bi solairu. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Arrasaten erdigunean lokal komertziala saldu edo errentan ematen da. Ferrerías kalean, 72 m². Tel.: 79 97 86.

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 94 62.

• Klinika laguntzailea eta geriatrian titulodun andra pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Emakume gaztea gertu etxea, atarteak edo bulegoan garbitzeko. Tel.: 79 59 75. Agus.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 945 - 44 52 79.

• Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

• Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gauez.

• Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun emakume euskaldunak pertsona nagusiak zainduke lituzke. Margari. Tel.: 77 04 60.

18. Eskaerak

• Neska behar da tabernan baten lan egiteko. Deitu 3etatik 5etara. Tel.: 79 00 34.

• Hiru edo lau hilebeterako elektrizita bat behar dut tentsio bajuko berifikazioak egiteko. Tel.: 907 41 89 71. Santi.

• Kamareroa behar da. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da igandetan lan egiteko. Autoa beharrezkoa da. Tel.: 79 47 85.

• FP2 duen mutila elektrizitatean eta elektronikan aditua dena behar da. Tel.: 79 06 48.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: (945) 44 50 86.

• Esperientziadun pertsona bat behar da dekorazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda ordutan.

• Gidatzeko kameta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

• Pertsona nagusi bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume baten beharrea gaude. Tel.: 79 78 98.

• 30 urtetik gorako neska bat behar da. Tel.: 79 22 92.

19. Bestelakoak

• Jaunartze eta beste ospakizunetan soinua jotzeko prest gaude. Dantza eta giro ederra preziorik onenean. Tel.: 79 51 20 Igor eta 79 24 85 Jon. Gaueko 9etatik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Esperientziadun neska larunbat goizetan klase partikularak emateko geratu. Tel.: 79 06 39.

• ESoko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientzia. Tel.: 79 56 78.

21. Eskaerak

• Zergatan aditua den laguna behar da eskolak emateko. Tel.: 79 32 54. Iñaki.

• 3. BUP eta 1. LOGSEko matematika eta fisika klase partikularak behar ditut. Tel.: 79 66 56.

• Elektronika analogikoko klase partikularrak behar ditut. Tel.: 79 41 25. Aitor.

MOTORRA

23. Saldu

• Yamaha Virago 1.100 motorra salgai. SS-AJ. 1990 urtekoa. Extra asko ditu eta egoera onean dago. 700.000 pta. Tel.: 79 61 89.

• Opel Corsa GT. Tel.: 79 93 75 / 79 22 50. 8 urtekoa. Egoera ona.

• Renault 11 TX autoa salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Renault 11 TXE, SS-X salgai. Tel.: 79 22 85. Mikel.

• Suzuki DR2. 50 zm³ salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Bultaco Cross 350 motorra salgai. Tel.: 79 25 73. Ibon.

• Renault 5 GTL salgai. SS-P. Egoera ona. Tel.: 79 81 35 / 79 93 30.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Opel Corsa 1.3 GT salgai. BI-AL. Tel.: 620 19 02. Arratsalde. Txomin.

• Cajiga 125 cc motor berria salgai. 300.000 pta. Tel.: 79 26 34.

DENETARIK

26. Saldu

• Igloo markako denda salgai. 5 lagunendako. Egoera onean dago. 8.000 pta. Tel.: 71 52 38. Maider.

• Auto barruan umea eramateko aukia salgai. Tel.: 79 44 14. Betatik aurrera ditut.

• Macintosh Classic ordenadorea eta inprimagailua salgai. Tel.: 36 03 89.

• Salgai: Rucka bat, egurrezko arka tailatu bat, egurrezko seaska tailatu bat, egurrezko jarleku luze bat, eta bi egurrezko kutxa, denak egur onetan eginak. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Idazmakina mahai eta guzti salgai. Tel.: 79 65 31 gaueko 10etatik 12ak arte. Astelehenetan ezik.

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurpilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Collie txakurra salgai. Tel.: 79 06

98. Joseba.

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezin hobean. Tel.: 79 59 85.

27. Erosi

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

• Bigarren eskuko argazkiak proiektatorea erosiko nuke. Tel.: 79 55 88.


31. Galdu

• Eguzkitarako betaurreko graduatuak galdu zaizkit. Tel.: 79 40 09. Gauez.

• Aldaigainen katua galdu da, emea da, grisa eta geige kolorekoa. Tel.: 79 15 00.

32. Aurkitu

• Poltsa bat aurkitu nuen Urkulun, apirilean, zapatua. Jabeak, gaueko Betatik 10etara dei dezake. Tel.: 77 00 18.



LORAMENDI N




AEROBIC-A MODAN!



Eta orain... Trabelarekin puntuak irabazi!

■ Haritz Azkarraga

ZALDIBAR TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA



Arrasatear petoa da, 1973ko otsailaren 2an jaioa zen Haritz Azkarraga Ugarte. 24 urterekin injinerutza teknikoko ikasketak eginak ditu Eskola Politeknikoan eta orain Fagor Ederlan enpresan mantenimenduko teknikari bezala dabil lanean.

1. Zein da zure horoskopoa?
Akuario.

2. Sinestuna zara? Bai.

3. Animalia bihurtzekotan?
Arrano.

4. Zure akats bat/gauza on bat? Desordena/Lagunak erraz egiten ditut.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Euskal Herriko egoerak

6. Amets bat? Euskal Herri independentea.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Injustizia.

8. Gertakizun historiko bat? Carrero Blancoren heriotza.

9. Nor miresten duzu? Musutruk besteen alde lan egiten dutenak.

10. Zeri diozu beldurra?
Bakardadeari.

11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?
Aitona hil zenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Jende aktiboa.

14. Eta zuri? Behar den bezalako kotxea.

15. Lanbidez aldatzekotan?
Astrofisikoa.

16. Arrasateko gustoko toki bat?
Zaldibar.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Nire gela txukundu.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu?
Egin.

19. Gustoko janari bat? Txuleta patata erriekin.

20. Liburu on bat? *El señor de los anillos*.

21. Filmerik onena/txarrena? *La lista de Schiller/ Desperado*.

22. Musika talderik onena/txarrena? Musika klasikoa/ flamenkoa.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? Grandes dokumentales/ Reality showak.

24. Egin dizuten oparirik politena?
Musu bat.

25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Futbitoan, musika entzuten eta parradan.

26. Oporretarako toki bat? Gandia.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena?
Fregaua.

28. Gomendio bat? Gauzak egin aurretik bi bider pentsatu.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Lagun eta familiagatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Bizi.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Uribarri-Garagartza-Gesalibar

Arrasaten azken 30 urtetan eman den aldaketa bista bistan

Hemen gaude berriro Patxadan taldekook, Arrasate inguruko ibilaldiak prestatzen ditugunok, atal honetan aspaldiko partez. Amporretarrek kale egin digute azken hilabete honetan Euskal Herriko bazterrak ezagutzera joan direlako. Astelehenero izaten dugun hizketalditxoari esker jakiten dut beren berri. Aralarren, Urbasan, Gorbeian, Toloñon, Larrunen, Euskal Herriko zazpi probintziak ezagutu nahian dabilta. Arrasateko ibilalditxoak neuk prestatzeko erregutu didate eta gustora egingo dut eginkizun hori. Nik proposatuko dizuedan ibilaldia Uribarri eta Gesalibar auzotik barrena abiatuko da ea Amporretarrekin bezain ongi pasatzen dugun. Arrasaten azken bi hilabete honetan egin duen eguraldia kontuan hartuta zapatilekin egiteko moduan da ibilaldia. Zoritxarez, batzuentzat zorionez, euripean egin dut ibilaldiaren zati bat (dagoeneko badakizue noiz prestatu dudan ibilaldia). Uribarri auzotik abiatuko gara, Gau txori tabernaren atzealdetik. Bertatik Udaltx aldera doan bidea hartuko dugu. Aldapa gogorra da, baina politto politto igoko dugu, gure ezkerretara zerrategia ikusiz eta eskuinetara Goiru baserria. 15 minuturen buruan bidegurutze batera helduko gara, eta puntu horretan eskuinetara hartuko dugu bide asfaltatua utzita. Pinudi batetik pasatuko gara eta hortik gutxira planta berriko etxea ikusiko dugu urrutira; norabide hori erreferentzi



Gesalibar auzoa goi goitik ikusi ahal izango da.

modura hartuz, narrez betetako bideska batetik abiatuko gara. Azpiko etxe horretara heldu ondoren pista zabal batera aterako gara eta Gesalibarrerantz abiatuko gara bide hori utzi barik. Bide horretatik ibiliaz konturatuko gara Arrasaten azken 30 urtetan eman den aldaketaz. Bailaran Garagartzan dagoen Fagorreko lantegia, lur onenak hartuz eta lanpostuak sortuz, kokatzen da; mendialdean, baserria hustuta eta inguruak narrez beteta. Ordubete igaro eta gero Gazeagako erreka helduko gara. Erreka gardena zeharkatu eta gorantz abiatuko gara, Besaideko norabidea hartuz eta Kobate ezkerretara utzita. Laster topo egingo dugu txabola batekin, hobe esanda txabolaren aztarnekin.

Hemengo paisaiak ere gogoeta pare bat dakarkit: zenbat pista zabalten diren mendiarri etekina ahalik eta azkarren ateratzeko, eskalektria irudi; Kobateko kanteratik zenbat harri atera den; Kobatek, ez al du nahikoa eman?. Txabolatik, pista jarraituz, Gesalibarko baserrietara helduko gara. Lehena Parraia baserria da. Parraia baserritik bailarantz joango gara Txirrita tabernaraino Gesalibar auzo barrenetik. Puntu honetatik Aramaioko bidea hartuko dugu eta 50 metro inguru egin eta gero, ezkerretara dagoen porlanezko bidea hartuko dugu. Aldapa gogorra da baina laister leunduko da bidea. Bidetik Mañeri baserrian dauden makatzondo eta sagarrondoak ikusiko ditugu.

Makatzondoak loreak galdu ditu eta makatz-frutuak ikus ditzakegu. Aurtengo udaberria joan den moduan, fruta arbolak 20 eguneko aurrerapena izan dute loratzean. Txorriek ere lehenago ekarri dituzte euren txorikumak. Aurrera joanda Enauzketa baserria eta beste batzuk pasatuko ditugu, Baztargain Azpiko baserri-raino. Baserri honetatik aldapa handiko pista bat ateratzen da Arrasateko norabiderantz. Pista hori hartuko dugu eta Telleri baserri-raino eramango gaitu. Dagoeneko amaitu dugu ibilaldia, Amat lantegiaren atzealdean aurkitzen gara eta. Hiru orduko ibilaldia egin ostean Uribarri Auzoan gara berriro.

Patxadan taldea

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik
handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

ARKAZUZ

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian
Betiko muntaiak

FAGOR



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55

Bidaiak ikusi eta bidaiatzeko aukera ATBn

Asteazkenero emitituko den "Munduari Bueltaka" saioan Lanzarotera bidaia bat irabazteko aukera izango da.

Astero, Kurro famatua ezkutatu du Halcon Bidaiak-ek Arrasate Press aldizkarian, eta Kurro non dagoen asmatzen dutenen artean zozketa egingo da "Munduari Bueltaka"ren azken programan. Dudaren bat geratu bazaizue ez kezkatu, datozen asteetan zehatz-mehatz lehiaketa hone-tan zelan parte hartu kontatuko dizuegu eta.

Datorren asteazkenean, bestalde, Txile ezagutzeko aukera izango da "Munduari Bueltaka" saioan. Bost hila-betez Txilen egon zen Juan



Asteazkenean Txile ezagutzeko aukera Juan Carlos Trojaolaren eskutik.

Carlos Trojaolak kontatuko du Txile zelakoa den, eta bertan atera zituen diapositibak ere ikusgai izango dira.

Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina
14.30 Bixau orduan

Astelehena

21.00 Baztarrak Nahasketan (San Viator ikastolako ikasleek gidatutako saioa)
22.00 Caranserai musika saioa

Asteartea

21.30 Iluntzean Berriketan (Almeneko ikasleak)
22.00 Euskal Festa

Asteazkena

21.30 Iluntzean Berriketan (Almeneko ikasleak)
22.00 KK2A

Osteguna

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

Larunbata

9.30 Jaiarai umeendako saioa
10.00 Bi zoro eta zu (magazina)
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

■ ATBko asteko programazioa

16 Ostirala	19 Astelehena	20 Asteartea	21 Asteazkena	22 Osteguna	23 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Burua Astinduz (Errep.)	13.30 Munduari Bueltaka (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (Errep.)
21.30 Astebete	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	19.15 Kukaratxa Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Burua Astinduz Eneko Allendek aurkeztutako musika saio berria	21.00 Munduari Bueltaka Txile Gonbidatua: Juan Carlos Trojaola	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratxa Motel	

BAL-BAL
Umeak
Moda
Lurrindegia
Opariak

Bañez Dokorea, 15
(San Andres) • ARRASATE
Tel.: 79 06 37

AGR
Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



Fatimako amabirjinaren eguna pasatu da astean, hilaren 13an. Gaur egun ez zaio aparteko garrantziarik ematen, baina sasoi batean izaten zuen bai zeresanik. Urtero urtero mertzedarietako ikasleek antzerkia egiten

zuten Fatimako amabirjinaren egunez.

Argazkia 1959-60 urteen inguruan egin zuten antzerkiarena da eta gaur egungo abadetxearen atzealdean aterata dago. Acción Católica-ren lokala zegoen han eta Maritxu Muñoak zuzendutako antzerkira eskolako ikasle

guztiak joan ziren.

Ezkerretik hasita eta zutik daudenak honako hauek dira: Begoña Aranzabal, Margarita Belategi, Arantxa Gorosabel, Maribel Zugasti, Isabel Aranburuzabala, Esther Telleria, Mari Karmen Velez de Mendizabal, eta Begoña Etxeberria. Makurtua, berriz,

honako hauek: Txaro Andres, Jaione Zugasti, Juana Mari Arregi, Isabel de la Cruz, Milagros Belategi eta Maria Luisa Ajuria.

Urtea: 1959

Argazkia eta informazioa:

Mari Karmen Velez de Mendizabal.



Modara, ingurugiroa errespetatuz • Kolore eta ohial naturalak.

NATURAL FASHION



MODA
NATURAL

Dendaraba • GASTEIZ
Tel. 945-14 27 68

muebles

ARKAUZ

**Erakusketaren
berrizketa**

**ALTZARIAK-DISEINUA
APAINKETA**



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**


ARETXABALETA

Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxe: 79 23 51

Mondeo berria

Hau da agintea!

*Iñurrategi anaiak
berriz ere gailurrerantz
Mugarriekin.*



*Mondeoa
2.450.000 ptatik
aurrera.*



MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54 • Faxa: 79 62 54